



AGINDUA, 2023KO URRIAREN 25EKOA, BERDINTASUN, JUSTIZIA ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILBURUARENA, ZEINAREN BIDEZ ALDATZEN BAITA BERDINTASUN, JUSTIZIA ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILAREN 2023. URTERAKO DIRULAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKOA.

I.- Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburuaren 2023ko urtarrilaren 20ko Aginduaren bidez, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren 2023ko Dirulaguntzen Plan Estrategikoa onartzen da.

II.- Aipatutako plana onartu eta gero, hiru dirulaguntza-lerro aurretik izapidetzeko beharra ikusi da, ez baitira jaso planean; gainera, 2023an onartu eta argitaratu beharko dira, oraindik onartu ez arren 2024rako Saileko Dirulaguntzen Plan Estrategikoa.

Honako hauek dira lehenago aipatu diren dirulaguntza lerroak: Laguntzak Zuzenbideko lizentziadunentzat, Justizia Administrazioako karrera judizialean, fiskalean eta letraduen kidegoan sartzeari prestatzeko (Justizia Administrazioako Zuzendaritzak kudeatuta); Inklusio eta tratamendu komunitarioko proiektuak, zigortuak birgizarteratzeko (Justizia Zuzendaritzak kudeatuta); Euskal Autonomia Erkidegoko esku-hartze sozialaren eremuan hirugarren sektoreko jarduerak sustatzeko dirulaguntzak, abenduaren 4ko 271/2012 Dekretua garatzeko (Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritzak kudeatuta).

Dirulaguntzen plan estrategiko batean deialdi bat sartzeari onartu aurretik, haren balioaren betekizuna denez, beharrezkoa da Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren Dirulaguntzen plan estrategikoa aldatzea 2023rako; hortaz, horretan sartuko dira aurreko paragrafoan aipatutako hiru dirulaguntza-lerroak.

Aipatutako hiru dirulaguntza-programak aurretiaz izapidetzeko, Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren kontura emandako gastu-espedienteak aurretiaz izapideak arautzeari buruzko Ogasun eta Herri Administrazio sailburuaren 2007ko apirilaren 26ko Aginduaren arabera egingo da, eta dirulaguntzak ez dira emango kreditu nahikoa eta egokia egon arte.

Aurretik adierazitako guztiaren ondorioz, eta Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen urtarrilaren 19ko 12/2021 Dekretuaren 4. artikuluan ematen ditzkidan eskumenei jarraikiz, honako hau

EBAZTEN DUT

Lehena.- Enpleguko eta Gizarte Politiketako Sailaren 2023. urterako Dirulaguntzen Plan Estrategikoa aldatzea, honela aldatu ere:

1) Eranskinaren 2. epigrafea aldatzen da, eta honela geratzen da idatzita:

2.- Planaren erakunde- eta denbora-eremua

Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren dirulaguntza-jarduera osoa jasotzen du planak 2023. urtean; dena den, aurrekontuetan urte anitzeko partidak dituzten dirulaguntza-programen kasuan, aurrekontu-zuzkidura horiek aurreikusten duten denbora-tartea jaso da. Era berean, 2024an eman beharreko eta 2023an aurretik izapidetuko diren laguntzen eta dirulaguntzen aurreikuspenak jasotzen ditu planak, Ogasun eta Herri Administrazio sailburuaren 2007ko apirilaren 26ko Aginduan ezarritakoaren arabera (agindu horren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren kontura emandako gastu-espedienteak aurretiaz nola izapidetu arautzen da). Aurretiaz izapidetutako laguntzen eta dirulaguntzen



deialdietan adierazi beharko da kreditu egokia edo nahikoa egotearen baldintza bete arte ez direla laguntzok emango.

- 2) Planaren Eranskineko¹ 4. Epigrafearen (*Dirulaguntza-lerroen laburpena*) II. apartatuaren (*Justizia Administrazioko Zuzendaritza*) 3. apartatuan identifikatutako laguntzen lerroari dagozkion datuen ordezkari berean, 13. eta 14. orrialdeetan jasotako 2.1.3 lerroari dagokio, Agindu honen I. eranskinean agertzen direnak jarriko dira.
- 3) Azpiapartatu bat gehitzen zaio Planaren Eranskinaren 4. Epigrafearen (*Dirulaguntza-lerroen laburpena*) I. apartatuari (*Justizia Administrazioko Zuzendaritza*), 1 bis zenbakiarekin eta izen honekin: *Laguntzak Zuzenbideko lizentziadunentzat, Justizia Administrazioko karrera judizialean, fiskalean eta letraduen kidegoan sartzea prestatzeko. Aurretiatzko izapidetzea 2024rako*, eta dirulaguntza-lerro horri dagozkion datuak jasotzen dira, Agindu honen II. eranskinean dauden terminoen arabera.
- 4) Azpiapartatu bat gehitzen zaio Planaren Eranskinaren 4. Epigrafearen (*Dirulaguntza-lerroen laburpena*) II. apartatuari (*Justizia Zuzendaritza*), 3 bis zenbakiarekin eta izen honekin: *"Inklusio eta tratamendu komunitarioko proiektuak, zigortuak birgizarteratzeko"*. *Aurretiatzko izapidetzea 2024rako*, eta dirulaguntza-lerro horri dagozkion datuak jasotzen dira, Agindu honen II. eranskinean dauden terminoen arabera.
- 5) Azpiapartatu bat gehitzen zaio Planaren Eranskinaren 4. Epigrafearen (*Dirulaguntza-lerroen laburpena*) III. apartatuari (*Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritza*), 1 bis zenbakiarekin eta izen honekin: *Euskal Autonomia Erkidegoko esku-hartze sozialaren eremuan hirugarren sektoreko jarduerak sustatzeko dirulaguntzak, abenduaren 4ko 271/2012 Dekretua garatzeko. Aurretiatzko izapidetzea 2024rako*, eta dirulaguntza-lerro horri dagozkion datuak jasotzen dira, Agindu honen II. eranskinean dauden terminoen arabera.

Bigarrena.- Agindu hau argitara ematea dagokien bitarteko ofizialen bidez eta, edonola ere, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailari www.euskadi.eus webgunean dagokion eremuan.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko urriaren 25a

Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburua,
NEREA MELGOSA VEGA

¹3. *Inklusio eta tratamendu komunitarioko programak, zigortuak birgizarteratzeko.*

I. ERANSKINA

II. Justizia Zuzendaritza

Lerro-zk:	2.1.3.	
Helburua	Proiektu komunitarioak espetxeetan edo baldintzapeko askatasuna duten zigortuak birgizarteratzeko.	
Ekintza	Inklusio eta tratamendu komunitarioko programak, zigortuak birgizarteratzeko.	
Adierazleak	<p>1.- Baliabide-kopurua zigortuentzat egoitza-, bizileku-edo antzeko harrera egiteko, bereziki, premia bereziak behar dituztenei: zaurgarritasun-egoeran dauden pertsonak, seme-alabak dituzten emakumeak, etab... Eta artatutako pertsonak.</p> <p>2.- Harrera-baliabideen kopurua, erregimen irekian edo parekagarrian dauden eta mendekotasun edo osasun arazoak dituzten zigortuentzat. Artatutako pertsonak.</p> <p>3.- Berreskuratze-prozesuen testuinguruan, zigortuak erantzule egiten laguntzeko programak. Artatutako pertsonak.</p> <p>4.- Gizarteratzea sustatzen duten aisialdi hezigarriko jarduera-programen kopurua. Artatutako pertsonak.</p> <p>5.- Bizikidetzaren, gizarteratzearen, laneratzearen eta garapen komunitarioaren arloko programak. Artatutako pertsonak.</p> <p>6.- Psikologia- eta hezkuntza-arloetan esku hartzeko programak, baldintzapeko askatasuneko egoeran dauden pertsonentzat. Artatutako pertsonak.</p> <p>7.- Lankidetzeta-programen kopurua, askatasunaz gabetzeko zehapenen ordezkotako zigorrak eta neurriak betearazten eta horien jarraipenean. Artatutako pertsonak.</p>	
Organo kudeatzailea	Justizia Zuzendaritza	
Programa	1413	Espetxeak
Emakida	Prozedura	Lehia
	Sektorea	Espetxe-eremuan lan egiten duten hirugarren sektoreko entitateak.
Aurrekontu-konpromisoak	Zenbatekoa	2023. urterako kreditua: 2.500.000 €
	Kapitulua	4
	% finantziaketa	100

II. ERANSKINA

I. Justizia Administrazioiko Zuzendaritza

Lerro-zk:	1.1.2.	
Helburua	Justiziaren Plan Estrategikoa (2022-2028)	
Ekintza	Laguntzak Zuzenbideko lizentziadunentzat, Justizia Administrazioiko karrera judizialean, fiskalean eta letraduen kidegoan sartzea prestatzeko.	
Adierazleak	Oposizioa gainditzen duten eskatzaile eta onuradunen kopurua.	
Organo kudeatzailea	Justizia Administrazioiko Zuzendaritza.	
Programa	1411	Justizia Administrazioa
Emakida	Prozedura	Lehia
	Sektorea	Zuzenbideko lizentziadunak edo graduatuak
Aurrekontu-konpromisoak	Zenbatekoa	Aurretiazko izapidetzea 2024. urterako kreditua: 264.000 €
	Kapitulua	4
	% finantziaketa	100

II. Justizia Zuzendaritza

Lerro-zk:	2.1.4	
Helburua	Proiektu komunitarioak sustatzea euskal espetxeen mendeko askatasun-gabe zigortuta daudenak birgizarteratzeko eta gizarte-arreta emateko, bai eta zigorrak exekutatzeko eta espetxean, ingurune irekian edo ingurune komunitarioan zigortuta daudenak tratatzen laguntzeko proiektuetarako ere.	
Ekintza	Inklusio eta tratamendu komunitarioko programak, zigortuak birgizarteratzeko	
Adierazleak	<p>1.- Esku-hartze proiektuak, espetxean nahiz ingurune irekian egonik, adikzio-arazoak dituzten (substantzia psikoaktiboekin edo gabe) eta askatasun gabetuta daudenei mendekotasuna gainditzen laguntzeko, tratamendua emateko, jarraipena egiteko eta gizarteratzekoak, eredu bio-psiko-soziala lantzen dutenak. Artatutako pertsonak.</p> <p>2.- Esku-hartze psikoterapeutikoko, psikoedukatiboko eta sozioedukatiboko proiektuak, espetxean zein ingurune irekian askatasunaz gabetuta dauden pertsonen banaka edo taldean arreta, tratamendua eta laguntza ematekoak, bai eta tratamendu-programa espezializatuak ere, espezializatuak izanik bai tratatzen dituzten kolektibo bereziki kalteberengatik, bai tratatzen dituzten delitu motagatik: genero-indarkeria, sexu-indarkeria, familia barruko indarkeria, indarkeriazko delituak, delitu ekonomikoak, diskriminazio- eta gorroto-delituak, bide-segurtasunaren aurkakoak, ingurumenaren defentsa, animalien babesa, eta abar. Artatutako pertsonak.</p> <p>3.- Gizarteratzeko eta laneratzeko prozesuak bultzatzeko proiektuak, askatasun-gabetuta daudenentzat, espetxean nahiz ingurune irekian: Orientazio, prestakuntza, enplegu-sustapen, okupazio, bitartekaritza eta gizarte-laguntzako programak gizarteratzeko eta laneratzeko ibilbideetan. Artatutako pertsonak.</p> <p>4.- Aisialdi hezigarriko gizarte- eta kultura-jardueren proiektu-kopurua, trebetasun pertsonalen eta sozialen garapena eta kulturarako eskuragarritasuna bultzatzeko, ikastetxeetan ematen den denborari balioa eta erabilgarritasuna ematen diotenak, eta sozializazioa eta aldaketa pertsonalerako prozesua sustatzen dutenak. Artatutako pertsonak.</p> <p>5.- Berreskuratze-prozesuen testuinguruan, zigortuak erantzule egiten laguntzeko programak. Artatutako pertsonak.</p>	

	6.- Lankidetzeta-programen kopurua, askatasunaz gabetzeko zigorren ordezk zigorrak eta neurriak betearazten eta horien jarraipenean. Artatutako pertsonak.	
Organo kudeatzailea	Justizia Zuzendaritza	
Programa	1413	Espetxeak
Emakida	Prozedura	Lehia
	Sektorea	Espetxe-eremuan lan egiten duten hirugarren sektoreko entitateak.
Aurrekontu-konpromisoak	Zenbatekoa	Aurretiatzko izapidetzea 2024. urterako kreditua: 2.500.000 € 2025. urterako kreditua: 2.500.000 €
	Kapitulua	4
	% finantziaketa	100

III. Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritza

Lerro-zk:	3.1.4.	
Helburua	Sare-lana bultzatzea eta indartzea gizarte-zerbitzuen sistema publikoaren garapenean esku hartzen duten eragile guztiekin, bai instituzionalekin bai sozialekin.	
Ekintza	Euskal Autonomia Erkidegoko esku-hartze sozialaren eremuan hirugarren sektoreko jarduerak sustatzeko dirulaguntzak, abenduaren 4ko 271/2012 Dekretua garatzeko.	
Adierazleak	GIZ: Diruz lagundutako jardueren kopurua ELK: Diruz lagundutako jardueren kopurua JAK: Diruz lagundutako jardueren kopurua	
Organo kudeatzailea	Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritza	
Programa	3123	Gizarte-zerbitzuak
Emakida	Prozedura	Lehia
	Sektorea	Gizarte-entitateak
Aurrekontu-konpromisoak	Zenbatekoa	Aurretiatzko izapidetzea GIZ: 2024. urterako kreditua: 2.620.436 € 2025. urterako kreditua: 1.123.044 € ELK: 2024. urterako kreditua: 419.300 € 2025. urterako kreditua: 179.700 € JAK: 2024. urterako kreditua: 315.000 € 2025. urterako kreditua: 135.000 €
	Kapitulua	4

	% finantziaketa	100
--	-----------------	-----